

KONTROL MOZIOA

PLAZA HAUNDIKO (MARTIN SANTOS PLAZA) GUNE ESTALIAREN PROIEKTUAREN EGOERA DELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko urtarrilaren 22an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Egiatarrak aspaldi ari dira Plaza Haundi edo Martin Santos plazako estalkia berritu behar dela aldarrikatzen. Egia Bizirik auzo elkarteak gogoeta bat egin zuen estalki berri baten eta haren ezaugarrien inguruan eta 2016. urtean auzo elkarteak gai honen inguruko partaidetza prozesu bat martxan jartzeko eta proiektua gauzatzeko eskaera egin zion Udalari.

2017. urtean, Udalak partaidetza prozesu bat jarri zuen abian Egia Bizirik auzo elkarteak egindako gogoeta horiek auzoko gainerako bizilagunek egindakoekin osatzeko asmoz.

Partaidetza prozesua bukatu ondoren proiektua definitu zen eta lehenengo eraikuntza fase baterako 1.300.000€-ko aurrekontua aurreikusi zen. Aurreko agintaldiko Udal Gobernuak iragarri zuen obrak 2018. urteko udazkenean hasiko zirela eta zortzi hilabeteko epea izango zutela.

Urtebete joan den honetan, bizilagunek zain jarraitzen dute obrak noiz hasiko. Urriko batzordean delegatua interpelatu genuenean adierazi zigun adostasun falta zegoela plaza azpian dauden aparkalekuetako jabe pribatuekin eta horregatik ezin izan direla obrak hasi. Antza denez, garaje jabeak ez daude gustura prozesu hau eramateko moduarekin eta, areago, badituzte bete gabe Udalarentzako zenbait eskaera. Baina hau horrela izanda, ez da urtebeteko atzerapena justifikatzen.

Gogorarazi behar da, bestalde, Grosen, Zuberoa plazako gune estalia ere baztertu duela Udal Gobernuak (2017rako obra honek amaituta egon beharko luke). Eta harrigarria da, izan ere, 2019ko maiatzaren 17an Udal Gobernuak, prentsan egindako adierazpenetan, Zuberoa plazako gune estaliaren proiektua bertan behera utziko zuela adierazi zuen, aurrekontu guztia Egiakoan inbertitzeko (hau da, aurrekontuaren egokitzapena egin zuen Zuberoa plazako 785.000 euro Plaza Haundin erabiltzeko).

Gauzak horrela, 2015etik aurrera estaltzea aurreikusten ziren hiru plazetatik bat bakarrik dago estalia. Hori zela eta, 2019ko azaroko udalbatzarrean honako kontrol mozio hau aurkeztu genuen:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2019-2023 agintaldian hirian estaltzea aurreikusten dituen plaza edo parkeen berri ematea.

2.- *Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Plaza Haundiko gune estaliaren obra egiteko beharrezkoak diren pausoak ematea, 2020an lanak hasi ahal izateko.*

3.- *Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko gune estalien beharrak aztertzeke eta obren jarraipen egokia egiteko Batzorde bat sortu dezala.*

Gezurra dirudi arren, Udal Gobernuak ezezko bozka eman zien hirian estali behar diren guneen zerrenda egiteari, Plaza Haundiko lanak 2020an hasteari eta gune estalien batzordea eratzeari.

Hilabete honetan, Egia Bizirik auzo elkarteko kideek adierazi digute gaiak bere horretan jarraitzen duela eta gune estaliaren obren atzerapenarekin kezkatuta daudela. Delegatuak aste honetako batzordeetan aipatu du ezin dela aurreikusitako proiektua aurrera eraman, plaza azpiko garajeetako jabeek ez dutelako baimenik ematen eta udal teknikariek baimenik behar ez duen proiektu bat diseinatzeko ari direla ezagutarazi du.

Egoera hau kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Plaza Haundi edo Martin Santos gunea estaltzeko proiektuan zerikusia duten alderdi guztiekin hitz egin dezala, aintzat har ditzala haien eskaerak eta ahalegina egin dezala, adostasunak lortuta, orain arte landutako proiektua gauzatzeko.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Plaza Haundiko gunea estaltzeko proiektuan aldaketak egin nahi izango balitu, 2017ko prozesu parte-hartzailean inplikaturako eragileak kontuan izan ditzala eta aldaketa horiek ere haiekin landu ditzala.

Donostian, 2020ko urtarrilaren 24an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia